



<i>Berdintasun Zerbitzua</i>		<i>Getxoko udala</i>
<i>Gaia: BERDINTASUN ZERBITZUKO ZINEGOTZIAREN BILERA</i>		

Bileraren datuak:

Data: 2013-01-24 Tokia: Santa Klara Jauregia Ordua: 17,00-18,00

Parte-hartzaileak:

Enclave de ciudadanas por Getxo plataforma: Charo De la Peña, Mari Nieves Mayer

Gizatiar: Mariví Peñaredonda, Carmen Peña

Getxo Enpresa: Maite Ibarbengoechea

Udal Alderdi Sozialista: Teresa García Oviedo, Inés Becares

Alderdi Popularra: Ana Basilio

Bildu: Maitane Nerekan

EAJ-PNV: Elena Coria

Batzarburua: Keltse Eiguren

Idazkaria: Idoia Eizmendi

Parte hartuko ez dutenak:

Eskuz-Esku (parte-hartzea justifikatu du)

Roda (Parte-hartzea justifikatu du)

ELA-STV

Equneko aztergai-zerrenda:

- Aurreko aktaren onespina
- Martxoaren 8ko kanpaina. Emakumeen nazioarteko eguna
- 2012ko Ekintza Planean (III. Berdintasun Plana) ezarritako ekintzen jarraipena, azterketa eta garapen mailaren balorazioa eta ekintzen lehenespina.
- Eskakerak eta galderak

Aurreko aktaren onespena

Aurreko bileran jasotako akta onetsi da.

Martxoaren 8ko kanpaina. Emakumeen nazioarteko eguna

Talde bakoitzak kanpainari begira egindako proposamenak entzuten hasi aurretik, Berdintasun Zerbitzuko zinegotziak jakinarazi duenez gero, Roda Elkarteak -bileran parte hartu ezin izan duenak- erantzukidetasunaren gaia proposatu du.

Gizatiar: gaur egungo krisialdi ekonomikoak emakumeengan izandako eragina, adiskidetzeta nabarmenduta.

Enclave plataforma: emakumeen egoera krisialdiari dagokionez. Hizlari gisa M^a Luz Esteban antropologoa eta ikerketa feministen Masterraren zuzendaria, Amaia Nausia historialaria eta Eusko Ikaskuntzako kidea, Maria Silvestre Emakundeko zuzendariordea eta Virginia Imaz pailazoa.

PSE: gai ezberdinak proposatu ditu:

- emakumeen hezkuntza. Hezkuntza-erreforma geldiaraztearen ondorioak.
- emakumeak eta nekazaritza. Emakume nekazarien Estatutuaren blokeo-egoera. Gizartearen ekintzaitza-mugimenduaren susperraldia, bertan nekazaritza biologikoarekin eta bestelako produktu ekologikoekin zerikusia duten enpresak azpimarratuta, eta emakume ekintzaile kopuru handiaren esku-hartzea nabarmenduta.
- Emakumeak eta kirola, mundu ikusezina. Goi mailako txapelketen eremuan gertatzen dena aztertzea.

Berdintasun Zerbitzuko zinegotziak planteatutakoaren arabera, Berdintasun Zerbitzuak emakumeen eta kirolaren kanpaina nabarmendu du.

Gai horiek guztiak interesgarriak dira, eta kanpaina honetan jorrazteko gaia aukeratu behar da, bai eta antolakuntza aurrera eramateko ikuspegia eta jarduera ezberdinak ere. Krisialdi ekonomikoa emakumeen ikuspuntutik jorraztea garrantzitsua bada ere, proposamen hori bi elkarteek plazaratu dutela kontuan izanda, azken hiru urteetan ikuspegi ezberdinetatik jorratu dela baloratu da, eta horrez gain, beharrezkoa da bestelako bereizkeria-eremuak aztertzea. Emakumeen eta kirolaren gaiaren inguruan akordio orokorra erdietsi da, baina behin betiko erabakia astelehenean (28) hartuko dugu. Horrela, elkarteen barruan kontsultak egiteko aukera eskainiko da.

2012ko Ekintza Planean (III. Berdintasun Plana) ezarritako ekintzen jarraipena, azterketa eta garapen mailaren balorazioa eta ekintzen lehenespena.

Berdintasun Zerbitzuko zinegotziak adierazi duenaren ariora, puntu hori eguneko aztergai-zerrendaren barruan jaso da. Izan ere, PSEk proposatu du, eta Batzordearen araudia kontuan hartuta, hori zerrenda horren barruan jaso behar da. Hala ere, aurreko bileran adierazi zen bezala, Berdintasun Zerbitzuak planaren jarraipen-agiria amaitzeko denbora gehiago behar du. Izatez, ekintza asko udal-sailek garatu dituzte, eta beharrezkoa da informazio egokia biltzea. Horregatik, ezinezkoa izango da gai hori bileran honetan jorratzea.

Berdintasun Zerbitzuko zinegotziak otsailean bilera bat egiteko proposamena egin du, batik bat, Berdintasun Zerbitzuaren Berdintasun Planaren ekintzak nahiz 2012ko lan-planaren ekintzak berrikusteko xedearekin.

Beraz, bilera datorren otsailaren 21ean egitea adostu da. Bilera horretara eramateko dokumentazioa bilera egin aurretik bidaliko da.

Eskaerak eta galderak

Ez dago

Bestelako informazioak

Puntu morea

Puntu moreari dagokionez, Berdintasun Zerbitzuko zinegotziak jakinarazitakoaren ariora, Batzordearen azken bileran adostu zen bezala, Hirigintzako zerbitzu teknikoei zirkulu hori hedatzea kontsultatu zaie, eta emaitza positiboa izan da. Gisa berean, beste puntu bat Algortan, hain zuzen ere, Telletxe-Torrenen kokatzeko aukera planteatu zaie, eta erantzuna baiezkoa izan da.

Emeki

Berdintasun Zerbitzuko teknikariak Emeki aldizkarian egingo diren aldaketei buruzko informazioa eskaini du. Aldizkaria oso-osorik euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuko da, eta kostuak aurrezteko helburuarekin, aldizkariaren kopurua 5.000 aletik 4.000 alera jaitsi da, paperaren gramajea murriztuta.

PSEk Getxoberrin Emeki aldizkariaren argitalpenaren berri eman daitekeen kontsultatu du. Martxoaren 8ko informazioaren barruan jasoko da. Izan ere, ia ez dago esparrurik udalaren informazio osoa jasotzeko.

Hurrengo bilera

Hurrengo bilera otsailaren 21ean arratsaldeko 17,00etan izango da.

Bestelako gairik jorrazeko ez dagoenez gero, bilera amaitu da.